

234. zk.

Bigarren aroa

Uztailak 15
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Kirolak

Erroibide Saskibalo
Taldeak udako
kanpamentua
antolatu du



Gaztea

Oporrak Bakean:
Saharako 12 hurrek
harrera familiekin
igaroko duten uda



Dies Oiassonis jaialdia

Irun erromatarra bueltan da

- 4 Luis Mariano, udako protagonista
- 5 Eraikik Gazte Folk jaialdia antolatu du
- 6 Merk2dasoa, bigarren eskuko gaien azoka
- 7 Gastronomía. Frantziako Nouvelle Cuisine
- 8 Kirolak. Erroibide Saskibalo Taldearen udako kanpamentua.
- 10 Haurren Leihoa. La Salle HH
- 11 Gurasoentzak. Nerabezaroa
- 12 Gazteen Lanak. San Vicente BHI
- 14 Gazte infor
- 15 Kultur agenda



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM



Yo has plantau



Xabier Kerexeta

"Bai, etorriko da gero, *yo has plantau*, *yo has plantau*. Landatzea ez baita aski, egin behar da ixadratu, egin behar da...". Eta herrestan aipatu zituen amoiñak lurgorritzetik fruitua eskuan hartu arteko zereginen zerrenda luzea. Landatzeaz harro zegoen hura, jakina, erdalduna zen. Euskaldunok gaizki bada gaizki ere hitzez hitzeko pasarteak jatorrizko hizkuntzan emateko dugun grina gai apasionantea da, hizkuntzarekin ez baina soziolinguistikarekin lotua dagoena.

Baina, apasionantea izanagatik ere, ez nuen nahi gaur hori hizpide. Ez eta miatzea ere Irunen inor geratzen ote den "ixadratu" hitza esaten duenik. Dena den, zuetako baten batek eza gutzen badu, mesedez esan dezala. Azkuek "ixarratu" jaso zuen, eta Irun-Lezo tartean "rozar" dela dio, eta Lapurdin, "podar las ramas bajas". Tira,

gaurko gaia beste bat da: baserrian jaiotakook badakigu, jakin, zeinen zaila den gure lur zekenetik fruiturik lortzea ("trufa lurra" ere zer den ezagutzen duenik bada? Agian, "ixadratu" dioen berbera), lan guztiak eta batbedera eginda ere aski baita ekaitz bat, edo xomorro bat, edo lehorte bat, edo bero sargoria, edozer gauza, uzta galtzeko edo behintzat jori zetorrena eskas geratzeko. Ama Lurrak fama ona du, baina ziztrina da gehiagotan, eskuzabala baino.

Baina hori ere ez zen preseski gaurko gaia. Gaurko gaia da askotan baserri-tarrok egunez egun lan egiten dugula, eta azkenean fruituak merkaturatzen ditugula, eta kaletarrak merke xuhurrean aritu ohi zaizkigula tratuan. "¡Total, si no es más que cogerlas del árbol!". Areago, askotan kaletar erdaldun bati edo besteri entzun ere entzun behar izaten diogu, hasierakari bezala, noizbait gauza puntual bat egin zuelako, merezimenduen jabe bera dela. Gure aita zenak esango zukeen: oiloak bezala, arraultze triste batengatik, egun osoan kokoriko!

Baina badago okerragorik: etorriko zaigula gero, noizbait miraria gertatu eta fruitu ederrari behingoz begira, "Yo has plantau" esango digunik, hura lortzeko kolpe zorrik jo gabe ere (eta kontent, traba egin ez bazuen!). Ezet? Esango dizuet hemendik urte batzuetara.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea:

Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Irun atzo Irun gaur



IUA: 41024

Victoriano Juaristi
doktorea atzo



IUA: 8734



IUA: 38715



5



4

IUA: 38732

Victoriano Juaristi Sagarzazu Donostian jaio zen 1880an. Valladoliden burutu zituen medikutzia ikasketak, arrakasta handiz. Madrilen eta Santanderren lan egin ondoren, 1903an Irunera etorri zen. Kolon ibilbidean jarri zuen bere kontsulta eta Udal Ospitalean dohain kolaboratzen hasi zen. Handik bost urtera Udalak Ospitaleko mediku-zirujau titular izendatu zuen. (3. argazkian garai hartan ospitalea nolakoa zen ageri da).

1914an Clínica Irún izeneko klinika pribatua eraiki zuen Pikoketa kalean (4. argazkia), 1919an Iruñera lanera joan zenean itxiko zena. 2. argazkian Clínica Irún-eko ebakuntza-gela batean agertzen da Juaristi, Larraz eta Navarro doktoreekin batera, 1914an.

Mediku lanbideaz gain, Arte Ederrak oso gustuko zituen eta horietako gehienak landu zituen; izan ere, idazlea zen, *El Bidasoa* astekarian kolaboratzen zuen, eta hizlaria, marrazkilaria, margolaria, eskul-

torea, esmaltegilea, musikaria, komedografoa eta etnografoa ere bazen.

Gizon kultua eta lotsati xamarra zen. Lagunik aipagarrienen artean bazeuden Pio Baroja eta haren iloba Julio Caro, Alvarez Quintero anaiak, Jose Maria Salaberria, Cesar Figuerido biolin-jotzaile irundarra... etxean antolatutako gau-beila kulturalerara gonbidatzen zituena.

Gure hiriarekiko harremanari dogokionez, 1912an bere ekimenez Fomento de Irún elkarte sortu zen, hiriari indarra emango zioten ekitaldiak antolatzeko.

Alfonso XIII.ak Erregina Isabel Katolikoa-ren Ordenaren Komendadore izandatu zuen 1919an. 1949an hil zen.

1985ean Irungo Udalaren Osoko Bilkurak Irungo kale bati Victoriano Juaristi izena jartzea erabaki zuen. Ama Miraritakoaren kalearen erdi parean hasi eta zaharren egoitzaren atzeko alderaino iristen da (5. argazkia).

Iturria: *Irungo kaleen izenak*. José Monje.



Irun erromatarren garaira itzuliko da Dies Oiassonis jaialdiaren bidez

Oiasso Museoa antolatu duen Erromatar Jaialdiaren egun handiak uztailaren 17a, 18a eta 19a izango dira.



Erromatar Jaialdiaren egitarauaren barruan ekitaldi handia da Navigium Isidis izeneko zeremonia. Hona, iazkoaren zenbait irudi.

Duela mende erdi inguru aurkitu zituzten arkeologoek lehen aztarna erromatarrak Irunen. Harrez gero, antzinako arbasoen inguruan informazio berria jaso dute etengabe irundarrek. Oiasso Museoa ondare arkeologikoa biltzeko gune garrantzitsu bilakatu zen 2006an. Baina hori baino gehiago ere bada. Beste urrats bat eman du museoak Dies Oiassonis jaialdia antolatzen duenetik. Aurten bosgarren urtez, Oiassoko hiritarren bizimodua eza- gutzeko aukera izango dute irundarrek eta bisitariak. Gladiadoreak, senatariak, soldaduak, esklaboak, artisauak zein jainkoak topatu ahal izango dituzte Erromatar Museoaren inguruko kaleetan zehar.

“Aurkitu ditugun aztarna arkeologikoen esaten digute hona erromatar bizimodua eta ohiturak iritsi zirela”, azaldu du Marijo Noain museoko jardueren arduradunak. Luxuzko zeramika, bitxiak, jokoak, termak... Bizitza-kalitate handiko arrastoak aurkitu izan dira Irunen egindako induske-

tetan. Jaialdiaren bidez, erromatar hiri bateko eguneroko ekintzak berregin nahi dituzte museo arduradunek. Guztira, hiru eguneko hitzordua izango da Dies Oiassonis. Uztailaren 17an hasiko da, Elena Torregarai EHUKo Antzinako Historiako irakaslearen hitzaldi batekin. Antzinako Erromako praktika sexualen inguruan ariko da Torregarai, Oiasso Erromatar Museoan bertan.

Navigium Isidis zeremonia

Portuaren inguruan hedatu zen Oiasso hiria, itsasoari, arrantzari eta bereziki merkataritzari estu lotuta. Dies Oiassonis festibalak harreman hori berreskuratuko du. Navigium Isidis zeremonia birsortuko dute parte-hartzaileek uztailaren 18an. “Isis jainkosari eskaintzen zitzaion prozesioa zen, eta nabigazioaren epea irekitzeko egiten zuten. Erlijioa oso garrantzitsua zen erromatarrentzat”, argitu du Noainek.

II. mendean Apuleio idazleak “Urrezko Astoa” obran egindako deskribapena ja-



rraituko dute prozesioa irudikatzen. 150 figurantek baino gehiagok desfilatuko dute, museoan hasi eta Dunboako ubideraino. Bertan, ontzia kontsokratuko dute, jainkosaren ohoretan.

Uztailaren 19an, hainbat ekintza

Uztailaren 19an, Oiasso Museoko plaza bilakatu da jaialdiaren erdigune. Ikusizun zeharo ezberdinak egongo dira aukeran: gladiadoreen arteko borrokak batetik, txotxongiloen antzerkia bestetik. Antzinako Erromaren garaiko merkatu txiki bat ere izango da, hainbat artisauen lanekin. Haurrentzat pentsatutako tailerrak egongo direla aurreratu du Marijo Noainek: “Beirazko ontziak nola egiten zituzten ikasi ahal izango dute, adibidez”. Osagai gastronomikoa ere ez da faltako 2014ko Dies Oiassonis festibalean. Erromatar janariaren dastatzea egin ondoren, Oiassoko biztanleen modura ardoarekin topa egiteko aukera izango da.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Eneala munduan, Kijilari, Desda nueve metros, petrossakanda, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bibisco, Zabioga, Kiriolen, Bibisco, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma, Eneala munduan, Kijilari, Desda nueve metros



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 **txingudionline.com**

petrossakanda, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bibisco, Zabioga, Kiriolen, Bibisco, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma, Eneala munduan, Kijilari, Desda nueve metros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zabioga, Kiriolen, Bibisco, Real Unión, Txingudi al Habla, Puente en forma, Eneala munduan, Kijilari, Desda nueve metros, petrossakanda, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bibisco



Erakusketaren inaugurazioan, Luis Marianoren pianoaren inguruan, Jose Antonio Santano alkatea, Belen Sierra Kultura ordezkaria, Helena Elbusto erakusketaren zuzendaria, Patxi Lacan Luis Marianoren laguna eta haren bi senide. Erakusketa Udalaren eta Lacan familiaren arteko lankidetzaz hitzarmen baten ondorioa da, familia hori baita Luis Marianoren herentziaren jagolea.

Etxera itzuli da Luis Mariano

“Luis Mariano 1914-2014” erakusketa ikusgai da Amaia Kultur Zentroan. Berregintza historikoa abuztuaren 13an egingo da

Parisen hil zen Luis Mariano, Bidasoaren ertetik oso urrun. Baina Irunen jaio zen duela ehun urte. Gazte zela gerraren ondorioz erbesteratu zen arren, ez zuen sekula bere jatorria ahaztu. Orain, artistaren ondarearen zati handi batek etxerako bidea egin du. Luis Marianoren objektu pertsonalen erakusketa zabaldu dute Amaia Kultur Zentroan. Bertan, abeslariak ikuskizunetan erabilitako arropak, behin baino gehiagotan jo izan zuen pianoa, kontzertuetako kartelak eta diskoak aurki daitezke. Berrehun bat argazki borobiltzen dute erakusketa. Objektu guztiak Luis Marianoren herentzia jaso zuen Lacan familiak Irungo Udalarari utzitakoak dira.

Erakusketa bi zatitan banatuta dagoela azaldu zuen uztailaren 4ko aurkezpenean Helena Elbusto arduradunak. Lehenengo aretoak Mariano Eusebio Gonzalez Garcia “pertsona” ezagutzera eman nahi duela azpimarratu zuen. Argazkietan, abeslariak familiarekin eta zaleekin zeukan ja-

rrera ikus daiteke. Itsasontzian bidaiatzen ere ageri da. Hala jotzen Ameriketara, hegazkina gorroto baitzuen.

Bigarren eta hirugarren aretoek, berriz, arreta Luis Mariano “pertsonaiarengan” jartzen dutela argitu zuen Helena Elbustok. Artistaren ibilbide profesionaleko bitxi ezberdinek osatzen dute sekzioa.

“Marianista” izango da uda

Erakusketa urte osoko egitarau zabal baten parte da. Uda “marianista” izendatu zuen Jose Antonio Santano alkateak, beste hainbat ekitaldi egingo baitira hurrengo asteetan zehar. “Serio hartu dugu urteurrena. Luis Mariano harro zegoen irundar izateaz, eta Irun ere harro dago berak egindako lanaz”, baieztatu zuen Santanok. Hiriak artistarekiko “zorra” daukala adierazi zuen alkateak, eta urteurrenaren ospakizunaren bidez betiko lotuko direla Irunen eta Luis Marianoren izenak. Oraingoz, abeslariaren inguruko xehetasunak ezagut ditzakete irundarrek,

Amaia Kultur Zentroko erakusketari esker.

ERAKUSKETA, abuztuaren 31ra bitarte, zabalik.

ORDUTEGIA: asteartetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan, 11:30etatik 13:30etara.

SARRERA: Doan.

BISITA GIDATUA: Uztailaren 24an, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan. Ez da izena eman beharrik.



1914ko gau batean izan zen

Berregintza historikoa helburu duen kale antzerkia egingo dute abuztuaren 13an, Luis Marianoren jaiotzaren mendurrena beteko den egunean. Antolakuntza lanetan dabilen Mertxe Tranche historialariaren esanetan, “haren jaiotzaren eguna irudikatzen ahaleginduko gara”. Horretarako, 1914ko abuztuko tesuingurua kontuan hartuko dute. Lehen Mundu Gerra hasi

berria zen. “Irungo mutil askok Frantziako herritartasuna zuten, eta armadara deitu zituzten. Gainera, errefuxiatuek egunero gurutzatzen zuten Bidasoa ibaiko muga”, azaldu du Tranche.

Aduana kalean jaio zen Luis Mariano, eta bertan abiatuko da berregintza jardunaldia, 20:00etan. Colon ibilbidea zeharkatu ondoren, artistaren izena daramaten lorategietan

bukatuko da lehen zatia. Bigarrena Zabaltza plazan egingo da, *Artes Verbénicas* antzerki konpainiak prestatutako ikuskizunarekin. “El cantor de México” filmaren proiektioarekin bukatuko da.

Irundar orok parte hartu ahal izango du antzezlanean. Historialariaren ustez “Urteurrena ospatzeko modua izateaz gain, historiaren inguruan ikasteko aukera ere ematen du”.

Nazioarteko folkloreaken bilgune bihurtuko du Eraikik Bidasoaldea

Europa ekialdeko taldeak izango dira nagusi Gazte Folk jaialdian

Hemezortzi edizio beteko ditu aurten Gazte Folk Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiak. Sei eguneko egitaraua prestatu du Eraiki Dantza Taldeak, eta antolatzaileez gain, beste lau taldek parte hartuko dute. Extremaduratik, Errusiatik, Serbiatik eta Errumaniatik iritsiko dira aurten gonbidatuak. “Hasieran bizpahiru talde etortzen ziren, eta aurten lau ditugu. Horrek lan handiagoa suposatzen du dantza taldeko kideen aldetik. Baina erakundeen inplikazio handiago bat ere eskatzen du”, azaldu du Ortzi Balda komunikazio arduradunak.

Irunen eta inguruko herrietan

Irunen, Hondarribian, Beran eta Zumaiian izango dira ikuskizunak. Eskualdetik kanpo irtengo dira, beraz, dantzariak eta musikariak. Urtero ateratzen saiatzen direla azaldu du Baldak: “Guretzat garrantzitsua da inguruko herriei harremanetan jartzea”. Emanaldiak eskaintzeaz gain, elkarbizitza ere egingo dute folklore talde ezberdinetako kideek.

Otorduak eta gauak elkarrekin pasatzeaz gain, jolasak eta bisitak ere egingo dituzte. Donostian, Oiasso Museoan eta Junkaleko elizan izango dira, besteak beste. “Oso harreman estuak sortzen dira. Gainera, gaur egun, sare sozialei esker, harremana mantentzea askoz errazagoa da”, aipatu du Baldak.

Urtebeteko lana

Joan den urteko abuztuan hasi ziren Eraikiko kideak 2014ko Gazte Folk jaialdia prestatzen. Aurrekoa bukatu bezain laster, balorazio bilera baten ondoren jarri ziren abian. Urtean zehar, hilabetean behin bildu dira, hitzorduari iskin egin gabe. Ia bi hamarkada darmatzate antolakuntzan, eta esperientzia hartu dutela baieztatu du Ortzi Baldak: “Denborarekin sakontzen ari gara, eta pixkanaka handitzen joan nahi dugu. Lan askorekin, pausu garrantzitsuak ematea lortu dugu”. Urrats bat gehiago emango du aurten Gazte Folk festibalak, boluntario eta laguntzaile guztien ahaleginari esker.

Parte hartuko duten taldeak

LOS JATEROS FOLKLORE TALDEA - EXTREMADURA

Extremadurako Fregenal de la Sierra herriko taldea da. 1965. urtean sortu zen, “Virgen de los Remedios” amabirjinari abestu eta dantzatzeko asmoz. Jatorriari muzin egin gabe, haien lan arloak zabaldu egin dituzte, abesti eta dantza herrikoiak hedatzea bihurtuz beren xede.

YERALASH DANTZA TALDEA - CHELYABINSK, ERRUSIA

1990ean sortua, 300 bat haurrek osatzen dute. Errusian zehar hainbat jaialditan parte hartu dute. Sariak ere jaso dituzte: Bazhov Jaialdiko sari nagusia (1998), “Haurren artea” jaialdiko sari nagusia (Mosku, 1999). Belgikan, Italian eta Austrian ere egon dira.

ERAIKI DANTZA TALDEA - EUSKAL HERRIA

1978an eratu zen Behobia auzoan. Hasieran, auzoko eta herriko jaialdi txikietan parte hartu zuen. Euskal

Herriko zazpi probintzietako folklorea erakusteko eta herriko gazteen artean interesa pizteko helburu bikoitzarekin atzerriko jaialdietan parte hartu izan du 1989az geroztik.

SLOBODA ELKARTE KULTURAL ETA ARTISTIKOA - RUMENKA, SERBIA

1980an sortu zen, Serbiako Rumenka hirian. Hasiera batean, dantza folklorikoaren arloan hasi ziren lanean. Egun 150 partaide baino gehiago dira, beren ohiturak eta ohorea babesten, dantza eta musikaren bitartez.

FLOARE MÂNDRĂ DE PE CRIS TALDEA - TILEAGD, ERRUMANIA

Hainbat jaialdi eta lehiaketatan parte hartu izan du, talde gaztea izan arren. Dantza eta kantu tradizionalak aurkezten dituzte. Emanaldietan Errumania bisitatzeko aukera emango dute, Crisul Repede, Barcau eta Crisul Negru haranetako folkloreaken bidez.



Bidasoaldean burutuko den egitaraua

Uztailaren 24a, osteguna:

13:00 Desfilea eta emanaldi txikiak Antzaran auzoan.

21:00 Desfilea udaletxera.

21:30 Harrera ofiziala udaletxean.

22:00 Desfilea Zabaltza plazara.

23:00 Festibalaren irekiera.

Uztailaren 25a, ostirala:

12:00 Desfilea eta emanaldi txikiak Irunen barrena.

Uztailaren 26a, larunbata:

11:00 Dantzen tailerra Zabaltza plazan. Dantzen elkartrukea.

19:00 Desfilea Hondarribiko kaleetan zehar.

22:30 Emanaldia Hondarribiko Santa Maria Magdalenan.

Uztailaren 27a, igandea:

12:00 Desfilea eta emanaldi txikiak Irunen barrena.

Uztailaren 29a, asteartea:

13:00 Desfilea eta emanaldi txikiak Irunen barrena.

23:00 Festibalaren bukaera Zabaltza plazan.

Bigarren eskuko produktuen azoka, uztailaren 20an

Europar ongi errotutako bigarren eskuko produktuen azokek gurean ere gero eta arrakasta handiagoa dute. Duela bost urte Txingudiko Zerbitzuek lehenbiziko Merka2dasoa antolatu zuten. Aurtengo bigarren hitzordua uztailaren 20an izango da, Hondarribian.

Merka2dasoa azoka partikularren nahiz elkarten parte-hartzeari irekita dago. Egoera onean dauden objektuak erosteko, saltzeko eta trukatzeko aukera dago; esate baterako, liburuak, arropa, bizikletak, jostailuak, apaingarriak eta beste hamaika gauza. Gero eta jarraitzaile gehiago dituen praktika da, onurak baizik ez baitakartza berekin batean: dagoeneko erabiltzen ez duten zerbaiten truke dirua jasotzen dutenentzat, gauzak oso merke erosten dutenentzat eta, oro har, guztientzat, gauzen bizitza luzatzen laguntzen duelako eta, ondorioz, zaborteigira igortzen diren hondakinen bolumena murrizten delako.

Parte hartu nahi dutenek lehenik datu pertsonalak eta saldu nahi dituzten produktuen informazioa Txingudi Zerbitzuen web orrian (www.txinzer.com) eman behar dituzte. Guztira 40 postu egokitu dira inskripzioa egin dutenentzat. Azoka 10:00etatik 14:00etara zabalik izango da.

Gordailu-salmenta: saldu, bertan egon gabe

Merkatuaren egun berean, San Pedro kalean, gordailu-salmenta moldeko gune bat jarriko dute antolatzaileek. Bertan, herritarrek utzitako objektuak salduko dituzte azokako langileek. Gordailu honetan, azoka egunean 9:00etatik 10:00ak arte jasoko dira mota guztietako salgaiak, arropa izan ezik. Jabeek 14:00etarako hurbildu beharko dute bertara saldutako objektuetatik bildutako dirua eskuratzera.

Aurreko azokan 2.200 produktu saldu ziren

Joan den maiatzaren 25ean Irungo Zabaltza plazan burutu zen Merka2dasoaren aurtengo lehenbiziko edizioa. Bertan lortutako emaitzak oso onak izan zirela adierazi dute antolatzaileek, 2.200 produktutik gora saldu baitziren. Miguel Angel Muñagorri Txingudi Zerbitzuetako gerentearen aburuz "oso datu interesgarria da eta sendotu egiten du ekimen honen alde egiten dugun apustua. Merka2dasoa azokaren bosgarren urtea da aurtengoa, eta lehen ediziotik oso harrera ona izan du ekimenak. Garbi dago herritarrek interesa dutela, bai eta geuk ere, jarduera baliagarria eta pedagogikoa baita".

Hurrengo hitzordua urriaren 4an Zabaltza plazan izango da.

Edozein informazio behar izatera, dei telefono honetara, **902 119 383**.



Azokan partikularrek zein elkateek bigarren eskuko gaiak sal ditzakete.



**BALIA EZAZU 700 € ARTEKO
LAGUNTZA OFIZIALA**

**Aldatu zure bainera
dutxa batengatik**

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.

¡Guztia 2 egunetan!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pelegrin de Urantz, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun

943 615 184 - 687 572 920

bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652

 **BAINU**

Frantziako Nouvelle Cuisineren eragina



Gure euskal sukaldaritzaren historiaren errebasoan, duela hilabete, Madrilen 1976an ospatu zen Gastronomiaren Lehen Mahai Inguuruan geratu ginen. Gaur horri helduko diogu berriro, bertan frantziar sukaldariak egon baitziren, euskal sukaldaritzan eragin handia izan zutenak.

Madrilgo mahai-inguruan parte hartu zuten sukaldarien artean egon ziren Paul Bocuse eta Raymond Oliver frantziarrak. Hauek, "Nouvelle Cuisine" deituriko frantziar sukaldaritzaren berriaren xehetasunak azaldu zituzten. Frantzian sortutako mugimendu honen oinarri izan ziren Cristian Millauk idatzitako printzipio filosofikoak.

"Nouvelle Cuisineren" printzipio filosofikoak:

- 1) Sukaldaritzan zailtasuna baztertu eta naturaltasuna bultzatuko dugu.
 - 2) Egoste-denbora murriztuko dugu.
 - 3) Merkatuko-sukaldaritzaren egingo dugu.
 - 4) Menu-aukerak murriztu eta urtarotara egokituko ditugu.
 - 5) Marinatutako produktuak eta fisandage-a baztertuko ditugu.
 - 6) Saltsak sinplifikatuko ditugu eta berezko zaporea indartzeko soilik erabiliko ditugu.
 - 7) Tokian-tokiko gastronomia eta sukaldaritzaren berreskuratuko ditugu.
 - 8) Sukaldaritzaren teknika berriak sartuko ditugu.
 - 9) Sukaldaritzaren dietetiko eta osasungarria egingo dugu.
 - 10) Plater berriak prestatzean, sormenak eta irudimena garrantzia handia izango dute.
- Printzipio hauek iraultza sortu zuten, espainiar sukaldaritzan oro har, baina batez ere euskal sukaldaritzan. Euskal sukaldariak izan ziren, hein handi batean, "Nouvelle Cuisineren" printzipioak bere egin eta

euren sukaldaritzaren filosofian sartu zituztenak. Horren erakusgarri dugu Juan Mari Arzakek eta Pedro Subijanak Lyonera egindako bidaia. 15 egun igaro zituzten bi euskal sukaldariak Frantzian, Paul Bocuseren jatetxean. Frantziar sukaldariak oso ondo baliatzen zuten merkatuko produktuak, bera zen merkatuko-sukaldaritzaren erakusle nagusia. Juan Mari Arzakek bidaia hartaz hitz egitean argi esaten du: "15 egun horietan egonkoritu eta finkatu zen Euskal Sukaldaritzaren Berriaren mugimendua".

Hurrengo atalean, hilabete barru, guztiz murgilduko gara euskal sukaldaritzaren berriaren mugimenduan, euskal sukaldaritzaren hankaz gora jarri zuen iraultza gastronomikoarekin. Bitartean, gozatu sukaldaritzarekin, gozatu gastronomiarekin eta gozatu bizitzarekin

! On egin!

GASTROFESTA

Oraitz Garcia
gastrofesta.com

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Saskibaloia eta natura



Aurten Erroibide Saskibaloitaldeak, Aragoiko Federakuntzarekin batera, udako kanpamentu berezia antolatu du Jacatik hurbil dagoen Villanua herrian. Guztira 26 neska-mutil saskibaloia-aren teknika ikasten eta naturaz gotzen ari dira.

Bigarren urtez, saskibaloian jokatu nahi duten haur eta gaztetxoek Pirinioetara joateko aukera dute Erroibideri esker. Naturan, ingurune polit batean, kirola egiteaz gain, adiskidetasun giroan murgilduko dira, baita bizi-balio asko ikasi ere.

Guztira hiru talde osatu dira, eta bakoitzak astebeteko formakuntza jasoko du. Aurten Erroibideko bederatzi eta hamasei urte bitarteko 26 neska-mutil parte hartzen ari dira bigarren taldean, alegia, uztailearen 11tik 18ra arteko txandan.

Erroibideko José Maria Miguel Bores eta Javier Ruano monitorea lanetan arituko dira, beste zenbaitekin batera, horietako batzuk, ACB Liga Endesa esperientzia dutenak. Lehengo urtean, esperientzia aberasteko, Cai Zaragozako jokalaria batek baino gehiagok parte hartu zuen Villanua kanpamentuan.

Saskibaloia eta natura

Pirinioetako egonaldian saskibaloiko teknika eta oinarrizko kontzeptuak ikasiko di-

tuzte, horretarako jolasak zein ariketak eginez. Kirola, ordea, ez da eguneko zeregin bakarra: saskibaloia alde batera utzita, mendi-txangoak egiten dituzte, quad-etan ibiltzen dira eta inguruko naturaz gozaten dute. Ibaiak, mendiak, kobazuloak, besteak beste, bertatik bertara ezagutzeko parada dute.

Enrique Lopezek, Erroibideko presidentek, dioenez, "umeentzat oso erakargarria da, kirola egiten dutelako, beren ohiko ingurutik ateratzen direlako eta aste batean zehar familiatik kanpo bizi direlako". Ikasitako guztia ikasturtean zehar praktikan jartzeko aukera izango dute Erroibidek antolatzen dituen ikastaroetan. Hamalau urtetik gorakoek kadete mailako taldeetan parte har dezakete; 11-14 urte bitartekoek asteazkenetan entrenamenduak izaten dituzte Azken Portuko Kiroldegian, eta 8-11 urtekoek, astelehenero.



lazko kanpamentuko hainbat irudi.



- Indoor zikloa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tonifikazioa
- Tai chi
- Pilates
- Defentsa pertsonala
- Step
- Kick boxing
- Zumba
- Brasillar Jiu Jitsu
- Muskulazioa

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA

Oinarrizko lanean, gozatzea helburu

Atletismoko udalekuak antolatu ditu
Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak

Estatuko atletismo proba nagusietan urtero maila handia ematen duen kluba da Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea. Noski, emaitzen atzean oinarrizko hasten den formazio lan sendoa dago. BATEko atleta gehienak Plaiaundiko harrobian hazi eta hezitakoak dira. Txikitatik barneratu dituzte kirolaren inguruko balioak. Urtean zehar atletismo eskolak dauka haurrak formatzeko ardura. Udaran, atletismo udalekuek hartzen dute lekukoa.

Sei txandatan banatuta egongo dira, uztailaren 7tik abuztuaren 15era. Bi orduz eskainiko ditu: lehenengoan, hurrek etxerako bidea hartuko dute goizeko saioa bukatu ondoren, eta bigarrean, Ficoban dagoen Singular Food jabetxean bazkaltzeko aukera izango dute, Iñigo Lavadoren jabetxearen kolaborazioari esker. Sei eta hamasei urte bitarteko hurrek parte hartuko dute. "Lehen zortzi urtetik aurrera ematen genuen aukera, baina aurten zabaltea erabaki dugu. Hala ere, adinaren arabera talde ezberdinak osatuko ditugu, alde handia dagoelako", azaldu du monitore lanetan diharduen Laura Morenok. Jarduera guztiak euskaraz aurrera eramateko helburua jarri dute BATEko arduradunek.

Atletismoa eta bestelako ekintzak

Plaiaundiko atletismo pista izango da udalekuen gune nagusia, baina ez bakarria. Bestelako jarduerak ere burutuko dituztela aipatu du Laura Morenok: "Aurten planteamendua aldatzea erabaki dugu. Ordu asko dira, eta atletismoaz gain jolasak eta bestelako aktibitateak eskaintzea pentsatu dugu". Pilatesa egingo dute eta Artaleku kiroldegira ere igoko dira, igerilekura. Hala ere, atletismoa bideratuta egongo da udalekuen zatirik handiena. Hurrei moldatutako ekintzak izango direla nabarmendu du hezitzaileak: "Gehiena atletismoa izango da, baina hurrei bideratua betiere. Jolasen bidez, proba ezberdinak ezagutu ahal izango dituzte".

"Jolasen bidez, proba ezberdinak ezagutu ahal izango dituzte"

Laura Moreno, monitorea

Laguntasunarekin eta dibertsioarekin lotutako beste balioak ere sustatuko dituzte. Laura Morenok garrantzi berezia ematen dio koordinazioa trebatzeari: "Askok beste kirolak egiten dituzte urtean zehar eta ez dute koordinazioa lantzeko ohiturarik. Baina atletismoan ezinbestekoa da".

Beste kirolak praktikatzeko badi-tuzte ere, zerbaitek erakartzen ditu haur eta gazteak atletismora. Asko dira uda batetik bestera udalekue-tan errepikatu egiten dutenak, baita ikasturtean zehar praktikatzeko jarraitzen dutenak ere. "Probatzeko hurbiltzen dira batez ere, kirol ezezaguna delako. Behin probatuta, ondo pasatuz gero, askok jarraitu egiten dute". Monitore honentzat, marketatik harago, berarekin hasitako hurrek atletismoan jarraitzen dutela ikustea da pozgarriena: "Batzuk Ligan lehiatzen dira seniorrekin, Espainiako Txapelketetan parte hartzen dute. Hala ere, garrantzitsua gus-tura etortzea eta ondo pasatzea da".

Super Amara BATEn moduko talde batentzat ezinbestekoa da, etorkizuneko atletak formatzeko, harrobia zaintzea. Baina ezin da ahaztu atletismoarekin ondo pasatzea dela lehenengo eta ezinbesteko urratsa.



**BATEko neska-
mutilak
jolasak egiten
Plaiaundiko
pistan.**



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN, 943 626 983 - 606 298 640



La Salle HH 5 urte



sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Nabla, Puente en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desde nueve metros



IRENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 **txingudionline.com**

recapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Nabla, Puente en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desde nueve metros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Nabla, Puente en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa

Haserre emozioaren erregulazioa. 3. atala

NERABEZAROA: Independentzia eraikitzeko unea. Non ipini mugak?

HASERRE emozioak indar handia hartzen du nerabezaroan, aldi hau baita pertsonok gure garrapen afektibo emozionalean bizi behar dugun identitate-afirmazioa eta independentzia eraikitzeko garaia. Gazteek bizi duten epe hori ongi ulertu eta onartzea oso garrantzitsua da helduentzat, bai eta zein muga edo erreferentzia argi ipini behar dugunaren inguruan gogoeta egitea ere:

ULER DEZAGUN NERABEZAROA, EDO GAZTEAK BIZI DITUEN HASERREALDI EMOZIOAK

Aldaketa fisikoak ematen hasten dira, hormonak dantzan hasten dira eta, ondorioz, beraiek ere zer gertatzen zaien ongi ulertu gabe haserrealdi bitxiak dituzte. Hauek dira maiz entzun ditzakegun sentimenduz betetako esaldiak: *Ez naiz haur txiki bat. Beti zuek nahi duzuen egin behar dut. Ez nauzue ulertzen. Beti niri errietan, edo gauzak gaizki egiten ditudala esaten didazue ...*

Normalean haserrealdia betebeharrak bat ipintzen zaielako, edo familiarekin (edo eskolarekin) ardurak bat dutelako muga ipini behar diogunean gertatzen da. Gazteak orainean bizi dira, beraien desioan, eta beren bizitza egin nahi dute. Helduekiko harremana anbibalentea da: haien beharra dute, baina, aldi berean, aldentzeko beharra sentitzen dute. Sentimendu hauek gaztearengan bat-bateko amorru eta kulpa emozioak sor ditzakete.

Haserrealdiaren ondoren barealdia etortzen da eta gehienetan gazteak pasa egin direla ohartzu



barkamena eskatzen dute. Bigarren aldi hau oso inportantea da, batez ere beren haserrealdia neurrigabea izan dela ohartzean erregulazio bidean daudelako. Hau da, SENTIMENDUA ONARTU ETA ULERTU behar diegu; baina haserrealdian egindako kaltea ohartu eta konpontzeko bideak eraikitzen ikasi behar dute. Helduaren araua edo legea ez dute gustuko, baina haserrealdiaren ondoren helduarekin enpatizatzea eta legea ulertzea eta onar-

tzea funtsezkoa da. Eta, noski!, gazteak bideratzea piztu duen betebeharrak edo ardurak betetzera.

ZEIN ERREFERENTZIA EDO MUGA IPINI BEHAR DUGU HELDUOK?

Gazteak errutina eta betebeharrak batzuk eduki behar ditu, bai ikasturtean zehar, baita udan ere. Udak malgutasun handia dugu ordutegiarekin, eta lagunekin gehiago gera daitezke, etxeko lanik ez dagoelako; baina orokorrean

ERREFERENTZIAK

Zure betebeharrak betetzen ez badituzu, ez dituzu zure pribilegio edo abantailak izango.

Helduok ulertzen dugu udan zaudela eta disfrutatu behar duzula, horregatik ordutegiarekin malguagoak izango gara eta lagunekin nahi beste geratuko zara; baina zure zaintza pertsonala eta familian egin behar diren ardurak mantendu behar dira, zure eta familiararen ongizaterako.

errutinak ordena eta autoerregulazio bat ematen du: esnatu, gosaldia, mahaia jaso, logela jaso, jantzi, garbitu... Gazteak independentea sentitzen delako, ez dituzte errutinak bideratu nahi, baina bere bizitzaren ordenurako beharrezkoak ditu.

Udan (baita ikasturte hasieran ere) gaztearekin arauak eta betebeharrak adostea oso inportantea da. Nork, noiz eta zein txandatan antolatzen ditugun etxeko ardurak; mahaia ipini eta jasotzea, harrikoa egitea edo garbigailuan sartzea, nork bere logela txukuntzea, arropa zabaltzea, zenbat denbora dedituko diogun irakurtzeari, familiaran elkarrekin egoteari edo otordua prestatzeari... Uda oso

baliagarria izan daiteke lan hauekin trebatzeko. Ez diete ikasketei aurre egin behar eta guraso gehienok lan egiten dugu; beraz, lantalde bat garenez, ardurak banatu eta txandakatzeko garrantzi handia du familiararen oreka eta aberastasuna sentitzeko.

ETA BETEBEHARRAK BETETZEN EZ BADIRA?

Gure fermutasun eta presentziak muga eta erreferentziak ematen dizkiete gazteei, eta horrekin ez litzateke ondorioz ipini behar; baina beren betebeharrak betetzen ez badituzte, zein litzateke ondorio positiboa?

Mehatxua dela esango digute, baina guretzat muga eta erreferentziak dira gure gazteak arduratsu eta autonomo egiteko bidea. Ez da zigorra, beti aukera bat ematen diegulako berriro beren betebeharrak sartu eta bere abantailak lortzeko.

Eta zeintzuk dira gazteek dituzten pribilegioak? Pantailak; hau da, teknologiekiko lotuta dagoen guztia: ordenagailua, telefonoa, telebista... Bestelako mugak edo erreferentziak ipini behar genituzke? Nire ustez, ez. Ezin ditugu lagunekin egon gabe edo kalera irten gabe utzi, garai horretan beren bizi arrazoien eta oreka emozionalaren iturri direlako.

Gogoratu hauek pistak direla nerabezaroak duen edertasuna bizi eta ematen dituen zailtasunak gazteekin batera gaintzen ikas-teko. Ez dago errezeta magikorik, baina egunegun, eginez, tronpatuz, hutsegiteak onartuz eta berriro saiatuz goaz aurrera!!! Uda ederra igaro dezazuela!!!

MAPI URRESTI ORTIZ

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués
+ DJ *Sizano*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara
Zer behar duzu?

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM

San Vicente BHI

TXISTEAK

Andre bat haragi denda batean sartzen da eta saltzaileari esaten dio:
-Emaidazu txerri buru hori mesedez.
Eta hark esaten dio:
Barkatu baina hori ispilu bat da.

Txinatar batek zera esan zion gizon bati:
- Aizu, kotxe hori berria al da?
- Bai, Alfa bat da.
- Lomeo?
- Pixa egiten badiozu, belarriondoko bat eman-go dizut!

Bi emakume elkartu dira eta batak bestoari zera esaten dio:
- Nire senarra aingeru bat da.
- Hau zorlea!- erantzuten dio besteak- Nirea oraindik bizirik dago.

SAIHETS EZAZU MARKETINA
ZEURE PRODUKTUA TXARRA BADA

Begien bistakoa badirudi ere, ez da soberan egoten behin eta berriro gogora ekartzea: zure produktua txarra bada, ez dizu merezi ezagutarazteko lanetan aha-lerin eta diru askorik inbertitzea.

Izan ere, sarritan topatzen dut kalitate eskaseko produktua duen jendea, bete behar lukeen helburua behar bezala betetzen ez duela-eta, erabiltzen erraza edo eroso ez dela-eta... eta halarik ere, hura hobetu beharrean uste izaten duena produktua sustatzeko eta saltzeko gakoak marketina eta publizitatea direla.

Originaltasun handiko kanpaina harrigarri bat espero dute, nolabaiteko magia edo, produktua berez erakargarri egin eta hura erosteko kontsumitzaile-ilara luzeak sortuko dituelakoan.

Batzuetan ez da produktu bat, zerbitzu profesional bat baizik. Halakoetan, are magia handiagoa behar izaten da, haren onuraduna objektu bat ez baina pertsona bat izaten da eta.

Bitxia da, gero: jende hori ez da konturatu ere egiten alderantzizko estrategia behar dela, hobea izaten baita halako produktu edo zerbitzuek alaitz publizitate gutxien edukitzea. Areago, hobe dute erabili dutenek, lotsaren lotsaz, inori ez kontatzea: ez dezala inork ere jakin hor dagoela, eta zeinen gaizki funtzionatzen duen.

Zenbat eta publizitate gehiago egin zure produktu kaxkarrari, hainbat jende gehiago, eta bereziki jendea hainbat azkarrago, konturatuko da ez duela merezi haren truke ordaintzea. Hain zuzen, nolako kanpaina egin, halako arbuioa sorraraziko du, erabili orduko baliagarria ez dela ohartzean.

Eta, bestela, "Dena 100ean" erako saltokiei erreparatu, nola ez duten packaging delakoetan inbertitzen (akats ortografikoak eta guzti!), nola ez duten batere inbertsiorik egiten publizitatean, ezta produktu merkeak ez direnetan ere. Badakite, jakin, beren borroka beste bat dela.

Pablo Moratinos

Marketing online-aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

GB EVENTOS
Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

Jai herrikoiak
Ezkontzak
Urteurrenak

Enpresa ekitaldiak
Erakunde ekitaldiak
Gai baten inguruko ekitaldiak

www.gbeventos.es

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA.COM

Mugaz gaindiko aholkularitza

MyL mugan
aholkulariak

Ficoba
Iparralde
hiribidea, 43.
IRUN

t 943 537 720
f 943 116 014
m 649 014 096

www.mylmugan.com

Saharatik Irunera irribarrearen bila

Aljerian bizi dira, errefuxiatuentzako kanpamenduetan, baldintza kaskarretan. Horietako hamabi hurrek Irunen uda igarotzeko aukera izan dute, besoak zabalik hartu dituzten familien elkartasunari esker. Irungo Udalak Saharatik etorri berriak diren hurrei ongietorri ekitaldia eskaini die uztailaren hasieran. Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Udal arloak, TADAMUN elkartearekin batera, izan dira harreraren sustatzaileak.



Argazki hauetan, alkatea eta Udaleko beste zenbait zinegotzi, Saharako umeei egindako harrera ekitaldian.

Hamalagarren urtez Saharako zazpi eta hamabi urte bitarteko umeak etorri dira gurera, "Oporrak bakean" programaren bitartez. Euskadi osora iritsi diren hiruhunetatik, hamabi hartu dituzte familia irundarrek.

"Oporrak bakean" egitasmoak bi helburu ditu: gizaldekoea eta solidarioa. Egonaldiak irauten duen bi hilabeteetan beren elikadura hobetzen dute eta mediku-azterketak egiten dituzte. Beste alde batetik, ibaiak, mendiak, itsasoa, basoak, eta abar ezagutzen dituzte. Kontuan izan behar da bitzita osoan ez dutela horrelako paisaierik ikusi, liburuetan izan ezik. Ume hauek urtean zehar errefuxiatuentzako kanpa-

mentuetan bizi dira, baldintza eskasetan. Udan beroa dute arerio nagusi, tenperatura berrogeita hamar gradutara ere heldaiteke eta.

Ama baten esperientzia aberasgarria

Amaia Segurola Saharako ume bat hartu duen boluntario bat da. Argi dauka zeinen garrantzizkoa den programa honetan parte hartzea horrenbeste behar duten laguntza eskaintzeko hurrei. Kontent eta irribarretsu ikusteak bereziki gogobetzen du Amaia. "Lehendabiziko egunak gogorak izan dira, haurrak bere familiaren falta nabaritzen duelako. Hori dela eta, deiak egin behar izan ditugu Aljeriara. Orain ongi moldatzen gara". Etxean haur

hauetako bat hartzeko ezer gutxi behar dela adierazi du Amaiak: "Beste ohe bat jartzea eta janari pixka bat gehiago erostea, besterik ez."

Sidahmed Irunera etortzen den hirugarren uda da. Opor hauek biziki pozten dutela azaldu zuen harrera ekitaldian. Bere kirolik gustukoena futbola eta igeriketa direla kontatu zuen. Halaber, padela, dantza, piraguismoa, bide heziketa eta gure inguruetako zenbait lekutara txangoak egiteko aukera izango du.

Esperientziaren alde positiboak ez dira haien zat bakarrik. Errefuxiatuen kanpamenduetan jaio dira eta beren familiek er-

beste luze bat bizi dute. Handik kanpo igaroko dituzten bi hilabete hauek eguneroan bizi duten errealitatea eta historia munduari jakinarazteko aukera garrantzitsua da. Harrera familientzat ere bizikidetzaren esperientzia oso onuragarria da gure gizarte balioak aberasteko.

Irun eta Smararen arteko senidetzea

2003. urteaz geroztik laguntza-hitzarmen bat izenpetzen da urtero lankidetzaren programa hedatzeko. Irungo Udalak diru-laguntza ematen du, "Oporrak Bakean" egitasmoaren barruan etortzen diren umeei bidaiak eta aseguruak ordaintzeko. Gainera, minen biktimen zentroari diru-laguntza ematen zaio.



Lehiaketak

- **KARTEL ETA ARGAZKI LEHIAKETA. HONDARRIBIKO JAIK.**
- Teknika libre: argazkia, margoa, marrazkia, collagea...
- Tamaina: 70 x 50 cm.
- Karteletan, derrigorrez jarri beharko da goiburu hau: "HONDARRIBIKO JAIK 2014ko IRAILA"
- **SARIAK**
- 1. saria: 650 euro
- 2. saria: 300 euro
- 3. saria: 200 euro
- Epea:** Uztailak 21



- **ARGAZKI LEHIAKETAK**
- Munduari begiratzeko hainbat ikuspuntu daude, zein da zurea? Jarri kameraren objektiboaren atzean eta erakutsi zurea. Gero begiratu bota honako argazki lehiaketei. Badago sariren bat irabaztea. Saiatuko al zara? gazteukera.euskadi.net webean sartu eta argazki lehiaketa pilo bat aurkituko duzu.



Bekak

- **BEKA EDO PRAKTIKA BILA** bazabiltza, gazteukera.euskadi.net web gunean Interneteko bilatzaile batzuk topatuko dituzu. Oso lagun-garriak izan daitezke!



- **CREA BEKAK**
- Creanavara-ko goi-mailako zentruko bekak.
- mila euro ematen dute Creanavara matrikula egiteko Informazio gehiago: info@creanavara.es

- **2014-2015EKO GLOBAL TRAINING BEKAK** nazioartean 8 hilabeteko praktikak egiteko 2014ko irailetik au-



rera. 30 urtetik beherako gazteentzako.
Epea: Uztailak 28



Hurrengo jaiak non eta noiz izango diren jakin nahi duzu? gazteukera.euskadi.net webgunean Euskadiko jaien egutegia prest daukate zuretzat.



Udako jarduerak Gaztelekun

Uztailak 18 SANTA KLARA IRLA

- (Donostia)
- Izen-ematea: uztailaren 17ra arte.
- Prezioa: 5 euro.
- Irteera: 15:30 - Iristea: 20:30. Gazteleku.

Uztailak 19 APARRAREN JAI.

- (Irun)
- Izen-ematea: uztailaren 22ra arte.
- Irteera: 15:30 - Iristea: 20:30. Gazteleku

Uztailak 24 PASEO BAT KATAMARENEAN

- (Hondarribia).
- Izen-ematea: uztailaren 22ra arte.



- Prezioa: 5 euro.
- Irteera: 15:30 - Iristea: 20:30. Gazteleku

Uztailak 27: AZKEN FESTA

- 19:30 - 22:00, Gaztelekun.

Jarduerak 12-17 urte arteko gazteei zuzendutako dira.

943.636.826 www.irun.org/igazte

Gazte elkarreentzako diru-laguntzak

Deialdigilea: Irungo Udala
DIRU-LAGUNTZAK GAZTE ELKARTEEI ETA GAZTEEI ZERBITZUAK EMATEN DIZKIETEN ENTITATEEI.

- **Epea:** 2014/07/26
Hartzaileak: Gazte Elkar-
teak eta irabazi asmorik ga-
beko entitateak, Irunen
jarduerak egiteko.

DIRU-LAGUNTZAK, MUSIKA-TAL-

DEEK ENTSEATZEKO LOKALAK ALOKA DITZATEN

- **Epea:** 2014/07/26
Hartzaileak: Entseatzeko lo-
kalak Irunen alokatuta dauz-
katen musika-taldeak.

- Profesionalak ez diren tal-
deak, indarrean kontratu
diskografikorik gabeak. Tal-
dekideek ez dute izan behar
30 urtetik gorakoak.

- Irunen edo beste udal-
erri batzuetan erroldatuta ego-
tea.

**SORKUNTZA ETA BERRI-
KUNTZA SUSTATZEKO
DIRU-LAGUNTZAK**

- **Epea:** 2014/10/31
Hartzaileak: Irunen gazte-
ekimen bat gauzatu nahi
duten gazte-taldeak.



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

**Irailaren 14ra arte****Erakusketa****Menchu Gal aretoan**

Resonancias izenburuko erakusketan, Remigio Mendiburu artistaren obra bilduma bat ikusgai.

Ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara; igande eta jaiegunetan; 11:30etik 13:30era.

Uztailaren 19an**Orientazio ikastaroa**

Lapurriturri-Erlaitz ingurune naturalean mapa eta iparrratza nola erabili irakatsiko zaie parte-hartzaileei.

irun.org web gunearen bidez izena eman ahal da uztailaren 17ra harte.

Abuztuaren 1ean**Zinema****Junkal plazatxoan**

22:00etan, *Frozen* filma proiektatuko da

**Abuztuaren 2an****Kontzertua****Diasso Museoan**

Limibe hari-hirukotearen kontzertua, 22:30ean.

**Euskal Jira 2014**


Zer: EUSKAL JIRA

Noiz: Abuztuaren 9an

Non: Letxunborro hiribidetik irtenda, Kolon ibilideia igaro eta Urdanibia plazan amaituko da.

**Gaszte Folk**

Munduko folklorearen jaialdia, uztailaren 24tik 29ra.

**EKAR TELEINMOBILIARIA****943 628 333**info@ekarinmobiliaria.com**IRUN** Erref: 04202

180 m², 4 logela (2 bikoitz, 2 bakun), 2 bainugela, komuna, egongela, sukaldea, jangela, terraza, balkoia, trastelekua, gasezko berogailua, tximinia txikia; kanpora, E/M orientazioa, eguzkitsua. Altzariduna. Garaje itxia 2 autorentzat. Kirol instalazioak.

Prezioa: 1.000 €**IRUN** Erref: 04205

Etxebizitza erabat zaharberritua. Azalera: 62 m². 2 logela bikoitz, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua; kanpora, ekialdea / mendebaldea orientazioa, eguzkitsua.

Prezioa: 135.000 €
(22.462.110 pta)**IRUN** Erref: 04187

Azalera: 60 m². 2 logela (bikoitz 1, bakun 1), bainugela 1, sukaldea, egongela, balkoia, igogailua, gasezko berogailua; kanpora, hegoaldera, eguzki-tsua.

Prezioa: 156.000 €
(25.956.216 pta)**IRUN** Erref: 04186

Azalera: 52 m². 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela; kanpora. Prezioa negoziara daiteke.

Prezioa: 80.000 €
(13.310.880 pta)**HENDAIA** Erref: 03323

Hondartzan, lehen ilaran. Azalera: 30 m², logela 1, bainugela, komuna, egongela sukalde amerikarra, terraza, igogailua, berogailu elektrikoa; kanpora, hegoaldera, eguzkitsua.

Aukeran: aparkaleku estalia.

Prezioa: 140.000 €
(23.294.040 pta)**HENDAIA** Erref: 04063

Erabat zaharberritua. 45 m², logela bikoitz bat (bi egiteko aukera), bainugela, egongela, sukaldea, ganbara, berogailu elektrikoa; kanpora, mendebaldera, eguzkitsua, bistak.

Prezioa: 159.000 €
(26.455.374 pta)**HENDAIA** Erref: 03511

Hendaiaiko gainetan, berriki eraikitako inguru lasaian. 65 m². Bi logela bikoitz, bainugela, komuna, 19 m²ko egongela, sukaldea, 10 m²ko terraza, bistak, 3 armairudun trastelekua, berogailua; oso eguzkitsua. Aparkalekua.

Prezioa: 190.000,00 €
(31.613.340 pta)**IRUN** Erref: 03878

106 m² bi solairutan, 5 logela (2 bikoitz, 3 bakun), egongela, sukalde lorategira irteeraduna, bainugela, gasoleozko berogailua; eguzkitsua. Aparkalekua kanpoan 3 autorentzat, arrapaladuna. Sotoa eta txokoa.

Prezioa: 350.000 €
(58.235.100 pta)**IRUN** Erref: 03898

80 m², 3 logela (2 bikoitz, bakun 1), bainugela, komuna, egongela eta sukalde handia, balkoia, igogailua, armairuak; hegoaldera, eguzkitsua. Zerbitzu guztietatik eta Pinudiko parketik hurbil. Minusbaliatuentzako sarbidea.

Prezioa: 190.000 €
(31.613.640 pta)**Luis Marianoren omenezko ekintzak**

Merkatarien egitaraua. Luis Marianoren jaiotzaren mendurrena dela eta, Irungo Udalaren laguntzaz, **Karaoke Jaialdia** antolatu dute.

- **Uztailak 18.** Fermin Calbeton. 19:00-20:30.

- **Uztailak 24.** Pio XII.a plaza. 19:00-20:30.

BESTE JARDUERA BATZUK:

- **Uztailak 19,** 22:00etan, **Luis Mariano Herrikoia** kontzertua.

- **Uztailak 4 - Abuztuak 31. Erakusketa,** Amaia KZn.

Luis Marianoren figura artistikoaren ibilbide kronologikoa ikuspegi estetikoetik. Lacandarrek Irunen gordailuan utzitako jantziak baliatuta, ikuskizun batzuetako jantziak ikusgai.

- **Argazki Lehiaketa.** Gaia: Luis Marianorekin zerikusia duen



edozein argazki. Aurkezteko epea: 2014ko maiatzaren 19tik abuztuaren 31ra. Gover Estudioan aurkeztuko dira (Serapio Mugica kalea, 7. Irun).

- **Abuztuak 13. Historia birsortzeko jardunaldia.** 20:00etan. Aduana kaletik abiatuta. Amaieran *El cantor de México* pelikula proiektatuko da.

Dentistari beldurra? Zeinek?



DENTAL ENBATA
CLÍNICA ODONTOLÓGICA

Vega de Eguzkiza, 27 - Bajo
943 62 00 27